



Elorrioko udala

IRAGARKIA

Elorrioko Udalak 2024ko bakarkako kirola sustatzeko dirulaguntza deialdia onartzea (2024-00215 espedientea)

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2024ko martxoaren 1ean egindako bilkuran, 2024ko bakarkako kirola sustatzeko udalaren dirulaguntza deialdia onartzea erabaki zuen. Beraz, dagozkion oinarri espezifikoak osorik argitaratzen dira.

Deialdi hau 2008ko abenduaren 18an egindako Ohiko Osoko Bilkuran onartutako Dirulaguntzen Oinarri Arautzaileen arabera egin da (2009ko martxoaren 9ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuak). Bi aldaketa izan zituen: lehena, 2010eko otsailaren 11n Osoko Bilkurak onartua (eta maiatzaren 10ean BAOn argitaratua) eta bigarrena, 2011ko abenduaren 28an Osoko Bilkurak onartua (2012ko otsailaren 10ean BAOn argitaratua).

Elorrio, 2024ko martxoaren 19a

Julene Lazkano Zenitagoia

Alkatea



ELORRIOKO UDALAK 2024KO BAKARKAKO KIROLA SUSTATZEKO EMATEN DUEN DIRULAGUNTZA ARAUTZEN DUTEN OINARRI ESPEZIFIKOAK

Elorrioko Udalak Dirulaguntzen Oinarri Arautzaileak onartu zituen 2008ko abenduaren 18an batutako Udalbatzaren osoko bilkuran, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean 2009ko martxoaren 9an argitara eman zirenak, eta zuzenketak onartu ostean, berriro argitaratu direnak bere osotasunean Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, 2010eko maiatzaren 10ean, 86 zenbakian. Horri eta Udalaren Diru-laguntzen Plan Estrategikoari jarraiki, diru-laguntzak eskatzeko deialdia egiten dut, ondoko oinarrien arabera.

1. XEDEA

1.1.- Oinarri hauen xedea da 2024 urtean zehar nazioarte, estatu eta erkidego mailetako bakarkako txapelketa ofizialetan parte hartu duten kirolari elorriarrei lehiaketa-bidez emango zaizkien dirulaguntzen arauak ezartzea eta baita lorpenak aitortzea.

1.2.- Dirulaguntza hauen xedea da 2024 urtean zehar bakarka egindako kirol jarduerak sortutako eta txapelketa ofizialetan izandako gastuak finantzatzea, lehentasuna ematen emakumeari kirol praktikan eta kirol egokitua egiteari.

1.3.- Salbuespen gisa, 2024ko ekitaldiaren barruan egiten diren lehiaketen kasuan, dirulaguntza hauek eman ondoren egiten badira, 2023an egindako lehiaketa baliokidea hartuko da kontuan, betiere aurreko urtean diruz lagundu ez bada.

2. PERTSONA ONURADUNAK

2.1. Dirulaguntza hauek eskatu ahal izango dituzte Elorriko erroldatutako bakarkako kirolariek edo taldekoak ez diren kirolak praktikatzan dituzten kirolariak eta hauen legezko ordezkariak. Eskatzaileak eskabide-orria aurkezteko egunean gutxienez bi urteko antzinatasuna, etenik barik, izan beharko du udal erroldan, praktikatzan duen kirolean kirol lizentzia izan beharko du eta 2024 urtean nazioarte, estatu eta erkidego mailako bakarkako txapelketa ofizialetan parte hartu duela egiaztatu beharko du.

2.2.- Oinarri hauek arautzen duten deialdi honetara ezingo dira aurkeztu dirulaguntza edo laguntza publikoak eskuratzea eragozten duen zehapen penal edo administratiboa dutenek, edo horretarako ezgaitzen duen legezko debekuren baten eraginpean daudenak, Bereziki, Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan zehaztutakoak.

2.3.- Martxoaren 16koa 1/2023 Legegintzako Dekretuak, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen Aurkako Indarkeria Matxistikari gabe Bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duenak, 2.4. artikuluan ezartzen du dirulaguntzen onuradun direnek 3. artikulua (printzipio orokorrak), 17.a (estatistikak eta azterlanak) eta 19.4.a (hizkera inklusiboa eta ez-sexista) bete behar dutela, udalaren eta onuradunen arteko erlazioari dagokion denboran eta gaian.

2.4.-Ezingo dute dirulaguntza hau eskatu 2024 urtean zehar larria edo oso larria den kirol diziplinazko arau-hauste egiteagatik zehapen irmoa betetzen ari direnak edo bete dituztenak.

2.5. Ezin izango dute oinarri hauetan araututako laguntzen deialdian parte hartu 2024 urtarrilaren 1ean, 15 urte beteta ez dituztenak

3. DIRULAGUNTZAREN GEHIENEZKO ZENBATEKOA GUZTIRA

Deialdi honetarako aurrekontuetan -2024.3400.480.17 "Norbanako kirolariak/Deportistas individuales" partidan hiru mila euro (3.000,00 €) aurreikusi dira.

4. DIRUZ LAGUNDUKO DIREN GASTUAK

4.1.- Dirulaguntzak izango dira bakarkako kirola egiteak 2024 urtean sortzen dituen gastuei aurre egiteko azaroaren 17ko 38/2003 Legea, Dirulaguntzen Orokorrak eta Dirulaguntza ematea arautzen duen Udal Ordenantzaren arabera.



4.2.- Diruz lagunduko diren gastuak honako hauek izango dira:

- a) Parte-hartze kuotak, txapelketetan parte-hartzeko edo eskatzaileak egindako kirol jardueren joan-etorriak eta ostatu-gastuak.
- b) Erositako kirol materiala eta ekipamendua.
- c) Kirol lizentzia-gastuak eta gimnasioetako edota kiroldegietako kuotak.
- d) Teknikoei edo laguntzaileei egindako ordainketak.

4.3.- Ez dira diruz lagunduko honako gastu hauek:

- a) Botikan erositako produktuak eta protesiak.
- b) Zehapen ekonomikoetatik eratorritakoak.
- c) Oinarri hauen 4.2 atalean jaso ez den beste edozein.

5. DIRULAGUNTZEN ZENBATEKOA

5.1.- Dirulaguntzaren bakarkako zenbatekoa ez da inoiz izango bostehun euro (500,00 €) baino gehiago hamabost puntu (15 puntu) baino gehiago duten eskatzaileentzat eta berrehun eta berrogeita hamar euro (250,00 €) hamabost puntu edo gutxiago duten eskatzaileentzat.

5.2.- Jasotako eskaeren ondorioz ateratzen den zenbatekoak gainditzen badu dirulaguntzarako deialdian aurreikusitako zenbatekoa, hainbanaketa egingo da eskaeren artean.

5.3.- Dirulaguntza hauek bateragarriak dira beste erakunde publiko edo pribatu batzuetatik jasotako beste dirulaguntza, laguntza edo baliabideekin Dirulaguntzen Ordenantza Orokorrak aurreikusten duenarekin bat.

6. EPEA ETA ESKABIDE-ORRIAK AURKEZTEA

6.1.- Eskabide-orriak aurkezteko epea hasiko da deialdiaren eta oinarri arautzaileen iragarkia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunean, azken eguna 2024ko azaroaren 8a izanik.

6.2.- Dirulaguntza eskabide-orriak Elorriko udaletxeko HAZean aurkeztu ahal izango dira, edo urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena, 16.4 artikuluan aurreikusten dituen eretatik edozeinetan, honako agiri hauekin batera:

- Eskatzailearen edo bere legezko ordezkariaren Nortasun Agiri Nazionalaren fotokopia.
- Kirol lizentziaren fotokopia, 2024 urtean indarrean egon behar duena.
- Dagokion Federazioak egindako egiaztageria federatua, larria edo oso larria den kirol diziplinazko edo administrazioko arau-hauste egiteagatik zehapen irmoa ez dela betetzen ari edo ez duela bete 2024 urtean zehar egiaztatuko duenak.
- Eskatzailearen kirol historia (emaitzak eta sailkapenak) dagokion Kirol Federazioaren oniritziarekin.
- Kirolaria kirol egokituan ari bada, ezgaitasunaren maila eta mota egiaztatzen dituen agiria.
- Eskatzailea adingabea bada, aitaren, amaren edo tutorearen baimena.
- I eranskina behar bezala beteta.
- Justifikazioko kontua: fakturak eta ordain-agiriak, hala nola beste erakunde publiko edo



pribatuengatik jasotako dirulaguntzak.

- 2024 urtean zehar egindako txapelketen kasuan, dirulaguntza hauek eman baino beranduago egin direnean, aurreko urtekoa hartuko da kontuan aurreko urtean dirulaguntzarik jaso ez badu.
- Hirugarrenen alta dokumentua behar bezala beteta, dirulaguntza eman behar izanez gero, ordaindu ahal izateko.
- Bi argazki original, formatu digitalean, dirulaguntza eskatzen duen kirol-jarduera egiten; argazki horien eskubideak Elorrioko Udalari lagatzen zaizkio, dirulaguntza horiekin lotuta erabil ditzan. Argazki horiek posta elektronikoz bidali beharko dira kirola@elorrio.eus helbidera.
- Kirolari adingabeen kasuan, nahitaezkoa izango da guraso-ahala egiaztatzen duen agiria aurkeztea.

6.3.- Kirolaria adingabea denean eskaria eta beharrezkoa den dokumentazioa guraso ahala duen aitak, amak edo legezko ordezkariak aurkeztu beharko du.

6.4.- Eskabide-orria aurkezteak oinarri arautzaileak eta Dirulaguntzen Ordenantza Arautzaileak xedatzen dutena onartzea dakar.

6.5.- Eskabide-orria aurkeztean datuak edo dokumentazioa falta badira, edo akatsen bat zuzentzea beharko balitz, eskatzaileari 10 egun baliodun emango zaizkio akatsak zuzentzeko edo falta diren agiriak aurkezteko, eta jakinaraziko zaio okerrak zuzendu ezean eskaera atzera egindakotzat joko dela, horretarako ebazpena eman ondoren.

7. ONURADUN IZATEKO DEBEKUA

Dirulaguntzen Ordenantza Arautzailean eta Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorrean bereziki, 13. artikuluan jasotako arrazoiez gain, ezingo dute dirulaguntzarik jaso eskabide-orria aurkeztutako egunean udal ogasunarekin, foru ogasunarekin eta Gizarte Segurantzaren zerga-bidezko betebeharretan egunean ez dauden eskatzaileak. Eskatutako agiriak edo ziurtagiriak aurkezte hutsak ez du esan gura onartuko direnik.

Ezingo dira onuradun izan administrazio-bidean, lan-bidean edo zigor-bidean berdintasun-eskubidea urratzeagatik eta sexuan oinarritutako bereizkeriari egiteagatik zehazpen irmoa jaso duten pertsona edo entitateak.

Martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuak, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen Aurkako Indarkeria Matxistarik gabe Bizitzeko Legearen testuategina onartzen duenak eta martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoak, Emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarrikoak, xedatzen dituzten betebeharrak betetzen ez dituztenak.

Dirulaguntza edo laguntza publikoak eskuratzea eragozten duen zehapen penal edo administratiboa izatea, edo horretarako ezgaitzen duen legezko debekuren baten eraginpean egotea, Martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen Aurkako Indarkeria Matxistarik gabe Bizitzeko Legearen testuategina onartzen duenaren edo Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoaren arabera sexuaren ziozko bereizkerian erortzeagatik gertatutakoak barne.

8. ESKAERAK BALORATZEKO IRIZPIDEAK

8.1.- Dirulaguntzak emateko prozedura konparazio bidez egingo da aurkeztutako eskaeren artean eta beraien arteko hurrenkera zehaztuko da.

8.2.- Elorrioko Udalak erabakiko du zein eskaera onartu eskatutako baldintzak bete eta bazterketa arrazoirik ez dutenen artean, dirulaguntzak emateko ondoko irizpide eta balorazio mugak hartuko ditu kontuan, gehienez lortu daitezkeen puntuak 45 izanik.

- a) 2024 urteko kirol historia: eskatzailearen kirol ibilbidearekin lotutako kontuak.



Parte-hartzea eta kirol jardueraren sustapena, trebetasunak, kirol emaitzak eta lortutako sailkapenak. 20 puntu gehienez.

(Puntu gehien lortutako txapelketari emango zaizkio puntuak eta ez dira metagarriak).

Ez dira kontuan izango eskola mailako fitxa edo kategoriako jarduerak, federatu gabeko jarduerak, master kategoriakoak (Europako txapelketak edo Munduko txapelketak izan ezik) edo antzekoak.

Ez da kontuan izango kidea den klubaren ohiko plangintzan sartzen den jarduerarik.

1) Kirol diziplinako federazioak antolatutako nazioarteko txapelketa ofizialetan parte-hartzea (Europako Txapelketak eta Munduko Txapelketak)

- i. Domina lortzeagatik: 20 puntu.
- ii. Parte-hartzeagatik: 16 puntu.
- iii. Master kategorian parte hartzeagatik: 5 puntu.

2) Europako txapelketak eta Munduko txapelketak ez diren eta kirol diziplinako federazioak antolatutako bestelako txapelketa internazional ofizialetan parte-hartzea:

- i. Parte-hartzeagatik: 10 puntu

3) Kirol diziplinako federazioak antolatutako estatu mailako txapelketa ofizialetan parte-hartzea (Espainiako Txapelketa eta Espainiako Kopa)

- i. Domina lortzeagatik: 16 puntu.
- ii. Parte-hartzeagatik: 10 puntu.

4) Kirol diziplinako federazioak antolatutako autonomia erkidegoko txapelketa ofizialetan parte-hartzea (Euskadiko Txapelketa eta Euskadiko Kopa)

- i. Domina lortzeagatik: 10 puntu.
- ii. Parte-hartzeagatik: 5 puntu.

b) Emakumezkoen kirola sustatzea:

Emakumezkoen kirola: 10 puntu; gizonezkoen kirola: 0 puntu.

c) Kirol egokitua sustatzea

Kirol egokitua: 10 puntu; ez egokitua: 0 puntu.

d) Herri Kiroletako kirolaria izatea

Bai: 5 puntu; ez: 0 puntu.

8.3.- Jasotako eskabide-orri guztiak aztertu ondoren eta balorazioa egin ondoren eskumena duen organoak dirulaguntzak banatuko ditu, banatuko den dirulaguntzen muga aurrekontukoa izanik.

9. PROZEDURA, INSTRUKZIOA ETA ERABAKIA

9.1.- Prozeduraren instrukzio-organoa gazteria eta kirol arlo teknikoa izango da.

9.2.- Eskabide-orriak jaso ondoren aztertu eta egiaztatuko ditu Kirol arloko teknikariak.

9.3.- Aztertuta eskaera guztiak, kirol teknikariak txosten bat egingo du, eta honetan jasoko den informazioa honako hau izango da: baztertutako eskabide-orriak eta baztertzeko arrazoiak; onartutako



eskabide-orriak, jasotako puntuazioa eta emon behar diren dirulaguntzen zenbatekoak, eta oinarrietan aurreikusitako betebeharrak betetzen dituztela.

9.4.- Kirola Informazio Batzordeak ebazpen-proposamena egingo dio dirulaguntza emongo duen organoari, hau da, alkateari nahiz eta kasu honetan Tokiko Gobernu Batzarraren esku utzi duen dirulaguntzen izapidetzea.

9.5.- Instrukzio-organoak, espedientea eta kide anitzeko organoaren txostena ikusita, behin-behineko ebazpen-proposamena egingo du, behar bezala arrazoituta. Proposamen hori interesdunei jakinarazi beharko zaie deialdiak ezartzen duen moduan, eta 10 eguneko epea emango zaie alegazioak aurkezteko.

9.6.- Ebazpenaren jakinarazpena egingo da urriaren 1eko 39/2015 Legearen, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena, 40 artikulua xedatzen duena jarraituta.

9.7.- Ebazpenaren kontra aukera izango da Berraztertze Errekurtsoa tartekatzeko ebazpena emon duen organoaren aurrean edo baita administrazioarekiko auzi-errekurtsoa.

9.8.- Fase honetan Elorrioko Udalak, instrukzio organoaren bitartez, aurkeztu diren proposamenak konparatu eta baloratu beharko ditu, onuraduna nor izango den zehazteko emakume eta gizonen arteko berdintasun irizpidea kontuan hartuz.

10. DIRULAGUNTZAREN ZENBATEKOA ETA ORDAINKETA

10.1.- Diruz lagundu daitezkeen gastuen %100a finantzatu ahal izango da, oinarrietan ezarritako kreditu-muga gainditu barik.

10.2.- Onuradun bakoitzari ordainduko zaion zenbatekoa idazkaritza teknikoak egindako txostenean jasotakoa izango da, zortzigarren oinarrian ezarritako irizpideetan oinarrituta.

11. ZURIKETA

11.1.- Dirulaguntza eskabide-orrian erantsitako agiriekin zurituta geratuko da jasotako dirulaguntza.

12. ONURADUNEN BETEBEHARRAK

12.1.- Diruz lagundutako jarduera orok komunikazio inklusiboa erabiltzea, non ez diren erabiliko pertsonak sexu, genero, jatorri edo bestelakoengatik umiliatu, degradatu edo estereotipatzen dituzten irudiak edo idatzizko edozein komunikazio-elementu. Berdintasuna eta pertsonen aniztasuna irudikatzen dituzten irudiak eta hizkuntza bultzatuko dira.

12.2.- Erabiliko den material guztietan estereotipo sexistak edo emakumeak diskriminatzen dituen adierazpenik ez agertzea.

12.3.- Dokumentazio guztian, publizitatean, irudian edo materialetan Elorrioko Udalean indarrean dauden hizkuntza irizpideak bete beharko dira.

12.4. Onuradunek bere irudia laga beharko diete Elorrioko Udalari dirulaguntzarekin lotuta egiten den edozein ekitaldirako. Gainera, bi argazki original, formatu digitalean, emon beharko dituzte dirulaguntza jaso duten kirola egiten eta argazkien eskubideak lagako dizkiote Elorrioko Udalari dirulaguntzarekin lotuta edozertan erabili ahal izateko.

12.5. Ahal den neurrian, euskara izango da erabilpen-hizkuntza administrazioarekiko harremanetan.



13. ARAU-HAUSTEAK, ZEHAPENAK ETA ITZULKETAK

Arau-haustek eta zehapenak, hala nola dirulaguntzaren itzulketak honako araudiak xedatutakora egongo dira: Dirulaguntzen Ordenantza Arautzailea, azaroaren 17ko 38/2003 Legea, Dirulaguntzen Orokorra, eta hau onesten duen uztailaren 21eko Erregelamendua, 887/2006 Errege Dekretu bidez onartua.

14. ARAUBIDE JURIDIKOA

Oinarri hauetan aurreikusi ez denerako honako hauetan aurreikusitakora joko da: Dirulaguntzen Udal Ordenantza Orokorra (2010eko maiatzaren 10eko 86 BAO), azaroaren 17ko 38/2003 Legea, Dirulaguntzen Orokorra, eta 887/2003 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamendua onesten duena.

15. DATUEN BABESA.

Elorrioko Udalak (aurrerantzean, "Udala"), IFZ: P-4803900-B, eta helbidea: Gernikako Arbola plaza 1 (48230), Elorrión (Bizkaia), emandako datu pertsonalak erabiliko ditu dirulaguntzen deialdi hau kudeatzeko. Tratamendu hori legitimatzen duen oinarria da Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistatik Gabeko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren ondoriozko legezko betebeharrak bat betetzea.

Datu horiek behar-beharrezkoak diren zerbitzuak ematen dituzten hirugarrenei baino ez zaizkie jakinaraziko, eta ez zaizkie hirugarrenei lagako, legezko betebeharra edo interes publikoa izan ezik.

Elorrioko Udalak datu pertsonalak gordeko ditu erantzukizunen bat eska dakioken legezko epean.

Dirulaguntzen deialdi honetan eskatutako datuak behar-beharrezkoak dira lehen adierazitako helburua behar bezala lortzeko; beraz, datu horiek eman ezean, Udalak ezin izango du bermatu prozeduran behar bezala parte hartuko duenik.

Nolanahi ere, interesdunak datuetara iristeko, datuak zuzentzeko, ezabatzeko, aurka egiteko eta mugatzeko eskubideak baliatu ahal izango ditu, alkatea@elorrio.eus helbidera idatzizko eskaera bidaliz. Interesduna harremanetan jarri ahal izango da Udaleko Datuen Babeserako Ordezkararekin (DPO), helbide elektronikoa honetan: dpo@elorrio.eus

Era berean, jakinarazten dizugu Datuak Babesteko Euskal Bulegoan erreklamazioa aurkezteko eskubidea duzula.



I ERANSKINA

ZINPEKO AITORPENA

Nik, NAN zk.: dudanak, eta helbidea(udalerrria)kalekozenbakian....., honako hau

AITORTZEN DUT:

- 1) Ez nagoela azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 13. artikuluko 2. eta 3 zatiek dirulaguntzak jasotzeko bateraezintasun ez eta debeku-kausatzat finkatzen dituztenetako batean ere.
- 2) Zerga guztiak ordainduta ditudala, eta ogasun eta gizarte segurantzako betebeharrak betetzen ditudala.
- 3) Dirulaguntza hauek lortzeko oinarrietan ezarritako baldintza guztiak betetzen ditudala.
- 4) Ez dut administrazio-bidean, lan-bidean edo zigor-bidean berdintasun-eskubidea urratzeagatik eta sexuan oinarritutako bereizkeriari egiteagatik zehazpen irmoa
- 5) Betetzen ditut Martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen Aurkako Indarkeria Matxistarik gabe Bizitzeko Legearen testu bateginak ezarritako betebeharrak
- 6) Honako egoeretako batean nagoela (dagokion laukian X bat jarri, eta dirulaguntza bat jaso izanaren kasuan bete):

☐ Honako dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideak ESKATU ditut:

Emon duen organoa	Eskatutako zenbatekoa	Bateragarritasuna edo bateraezintasuna
1.		
2.		
3.		

☐ Honako dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideak JASO ditut:

Emon duen organoa	Lortutako zenbatekoa	Bateragarritasuna edo bateraezintasuna
1.		
2.		
3.		

☐ EZ DUT BESTE INOLAKO DIRULAGUNTZA, laguntza, diru-sarrera edo baliabide eskatu inbertsio honetarako ez erakunde publiko batean, ez pribatuan, nazionala edo nazioartekoan.

Eta honela jasota gera dadin, eta dagozkion ondorioak sor ditzan, nik luzaten dut, 2024koren ..(e)(a)n.

Sinadura

HIRUGARREN ALTA / ALTA DE TERCERAS PERSONAS

A HIRUGARRENAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK / DATOS IDENTIFICATIVOS DE LAS TERCERAS PARTES

NAN / AIZ / IFZ – DNI / NIE / NIF:

ENPRESAREN IZENA edo PERTSONA FISIKOAREN IZENA /RAZÓN SOCIAL ó NOMBRE PERSONA FÍSICA:

HELBIDEA / DOMICILIO:.....

POSTA KODEA / CÓDIGO POSTAL:..... **UDALERRIA/POBLACIÓN:**

LURRALDEA / PROVINCIA: **TELEFONO(A)(K):** **E-POSTA/CORREO E.**

ESKABIDEARI DAGOKION KOMUNIKAZIOA JASO NAHI DUT

DESEO RECIBIR LA COMUNICACIÓN REFERIDA A ESTA INSTANCIA EN:

 EUSKERAZ

GAZTELANIAZ

B ORDEZKARIEN DATUAK / DATOS DE LAS PERSONAS REPRESENTANTES

Abizenak / Apellidos

Nombre/izena

E-posta/Correo elec.

NAN/DNI

1. _____

C ORDEZKARIEN DATUAK (kasua bada)/PERSONAS AUTORIZADAS PARA EL ENVIO DE FACTURAS (si fuera el caso)

Abizenak / Apellidos**Nombre/izena**

E-posta/Correo elec.

NAN/DNI

1.

2.

D BANKUKO DATUAK / DATOS BANCARIOS

IBAN:

[illegible]

TITULARRA / TITULAR:.....

Oharra: Emandako kontu-zenbakiaren titularra hirugarrentitular bera izango da.

Nota: La persona titular del número de cuenta facilitado deberá coincidir necesariamente con la parte titular.

BANKUAREN ADOSTASUNA(sinadura eta zigilua)
Conforme banco (sello y firma)

Banku-erakundearen sinaduraren eta zigiluaren ordez, hirugarren interesduna banku-kontuaren titularra dela egiaztatzen duen agiria aurkeztu ahal izango da. La firma y sello de la entidad bancaria podría ser sustituido por documento del banco que acredite que el/la tercero/a interesado/a es el/la titular de la cuenta bancaria.

Dokumentu hau sinatzen duenak dokumentu honetan zehaztutako datuak egiazkoak direla ADIERAZTEN DU, eta bere gain hartzen ditu emandako datuetan zehaztasun-gabetasunen bat jartzearen ondorioz erator daitezkeen erantzukizunak.

Quien suscribe **DECLARA:** que los datos especificados en este documento son ciertos, asumiendo en caso contrario las responsabilidades que pudieran derivarse de las inexactitudes que consten en el mismo.

Halaber, **BAIMENA EMATEN DU** Estatuko, Foru eta Udal Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorrearekiko zerga-zorren ziurtagiriak kontsultatzeko eta/edo jasotzeko. Asimismo, **DA SU CONSENTIMIENTO** para consultar y/o recabar el o los certificados de deudas tributarias con la Hacienda Estatal, Foraly Municipal, así como con la Tesorería General de la Seguridad Social.

Data, sinadura, sinatzailearen izena eta NANa (adjuntar DNI y representación)

Datu pertsonalen gaineko tratamenduari buruzko informazioa / Información sobre el tratamiento de datos personales:

Datuak Babesteko Lege Orokorraren 679/2016 Erregelamendua eta abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoak xedatutakoarekin bat, eskatzaileari jakinarazten diegu emon dituen datu pertsonalen tratamendua erahonetara egingo dena:

-Arduraduna: Elorrioko Udala dpo@elorrio.eus / **Datuen babeserako delegatua:** Grupo Unive Servicios Jurídicos SL dpo@elorrio.eus



Elorrioko udala

- **Helburua:** fakturen, kontabilitatearen eta diruzaintzaren gaineko kudeaketa egin ahal izateko administrazio eta kontabilitateko datuak emotea.
- **Legitimazioa:** helburu honetarako tratamendua egiteko emondako baimena.
- **Kontserbazioa:** datuok aipatutako helburua betetzeko behar den denboran zehar kontserbatuko dira, betiere, artxibo aplikagarriaren araudiak zehazten duena errespetatuz.
- **Hartzaileak:** arduradunak gaian eskumena duten agintariei jakinarazi ahal izango die.
- **Eskubideak:** eskatzaileak baimena ezeztatu dezake, sartzeko, zuzentzeko, mugatzeko, ezabatzeko, aurkaratzeko edo eramangarritasun-eskubideak erabili ahal izango ditu Elorrioko Udalari idatziz eskatuz erregistroanurkeztutako idatzi bidez edo datuen babesa duen delegatuari eskatuz (dpo@elorrio.eus) idatziz eskatuz NANaren kopia edo sinadura elektronikoko aitortua erantsi beharko dira.
- **Erreklamazioa:** Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren aurrean erreklamazioa aurkeztu ahal izango da

Conforme al Reglamento 2016/679 General de Protección de Datos y LO 3/2018, de 5 de diciembre (LOPDGDD), informamos a la persona solicitante que trataremos los datos personales en los términos siguientes:

- **Responsable:** Ayuntamiento de Elorrio - dpo@elorrio.eus. / **Delegado de Protección de Datos:** Grupo Unive Servicios Jurídicos S.L. dpo@elorrio.eus
- **Finalidad:** aportar los datos administrativos y contables necesarios para llevar a cabo la gestión de la facturación, contabilidad y Tesorería.
- **Legitimación:** El consentimiento otorgado para el tratamiento por esta finalidad.
- **Conservación:** Los datos se conservarán durante el tiempo estrictamente necesario para cumplir con la finalidad mencionada, respetando en todo caso el que determine la normativa de archivo aplicable.
- **Personas destinatarias:** La responsable podrá comunicar a las autoridades competentes en la materia.
- **Derechos:** Las personas solicitantes pueden revocar el consentimiento, ejercer los derechos de acceso, rectificación, limitación, supresión, oposición o portabilidad, dirigiéndose por escrito al registro del Ayuntamiento de Elorrio sito en Herriko Plaza, s/n, 48230 Elorrio o a la o el Delegado de Protección de Datos dpo@elorrio.eus. Será necesario adjuntar una fotocopia del DNI o firmar el correo electrónico con una firma electrónica reconocida. / **Reclamación:** Puede presentar una reclamación ante Agencia Vasca de Protección de Datos (<https://www.avpd.euskadi.eus/>).